

AURREKONTU IREKIAK

2017

EMAITZEN TXOSTENA

[2016ko URRIA]



Txosten honek “Aurrekontu Irekiak 2017” izeneko partaidetza-prozesuaren emaitzak biltzen ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015-2019 epealdiko Kudeaketa Plan Estrategiakoaren barruan bultzatu du herritarrekiko hartu-emanak gauzatzen dituen ekintza hori. Prozesua 2016ko irailaren 1etik urriaren 14ra bitartean burutu da eta Kudeaketa Plan Estrategiakoaren bost helburu nagusietariko baten barnean dago, hain zuzen “herritarren parte hartzeko bide arinak ahalbidetuz Gipuzkoako gobernua atzera asmatzearen” beharra azaltzen duen helburuaren barnean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduna gidatzen duen PDCA (Plan-Do-Check-Act – Planifikatu-Egin-Egiaztatu-Jardun) metodologiarekin bat eginda, txosten honek buru eman dio 2017ko ekitaldirako aurrekontu irekiak eta parte-hartzaileak zehazteko aukera ematen duen faseari. Gizartea lurralde historikorako jarduera-ildoen eta proiektu estrategikoen kudeaketaren partedun egiteak berekin dakar Foru Erakundearen eta herritarren arteko komunikazio-eredu berri bat definitzea, hurbiltasuna, hurkotasuna, ezaguera eta gardentasuna sortuz.

Jarraian, partaidetza-prozesuaren biografia zirriborratuko da, bigarren etapari, herritarren partaidetzarako fasea jasotzen duenari, arreta berezia emanez. Bigarrenik, emaitzen azterketarako ezarri den ikuspegi metodologikoa aurkeztuko da, bertan deskribatuko dira ikerketa-teknika kuantitatiboak eta prozesuan zehar erabilitako fitxa teknikoa. Hirugarrenik, 2017rako Aurrekontu Irekien emaitzak aurkeztuko dira honela banatuta: partaidetzaren emaitzak, jarduera-ildoen lehenespena, proiektuen aukeraketa eta herritarrek egindako ekarpenak. Azkenik, amaierako ondorioak jakinaraziko dira, lortutako emaitzak analitikoki laburbiltzen dituztenak.

Txosten honetan azaltzen diren partaidetza-prozesuaren emaitzak gizarte- eta estatistika-azterlanen kalitate-estandarrei jarraituz lortu dira. Horrela emaitzen egiatasuna zein fidagarritasuna bermatu dira eta, era berean, anonimatua eta konfidentzialtasunari buruzko bermeak zein datuak zorrozki jagon dira, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera.

AURKIBIDEA

0. HITZAURREA **4**

I. PARTAIDETZA-PROZESUA TESTUINGURUAN JARTZEN **8**

1. Metodologia **21**

2. Partaidetzaren datuak: emaitzak **24**

3. Jarduera-ildoak: emaitzak **30**

4. Proiektuak: emaitzak **33**

5. Herritarren ekarpenak **35**

II. ONDORIOAK **42**

III. KONPROMISOAK **45**

HITZAURREA



GIPUZKOA ideia aurrerakoienetara irekia dagoen lurraldea izateagatik eta bere talde-ekintzaren protagonismoagatik bereizi izan da. Izan ere, gipuzkoarren balioak beti egon dira Europako iparraldeko gizarte dinamikoago eta parte-hartzaileagoen balioetatik hurbil.

Gizarte gipuzkoarrak nahiago izan du lurraldearen eraldaketa nagusien protagonista izan eta ez ikuslea. Aldaketa- eta ziurgabetasun-garai hauetan elkarlaneko gobernantza etorkizun-bermea da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak **“Gipuzkoako gizartearekin konektatu”** nahi du eta **“etorkizunaren inguruan horrek duen kezkari erantzuna eman modu eraginkorrean”**. Jakitun da **Lurralderako garai berri bat zabalduko duen garrantzi handiko aldaketa-multzo bati** ekin behar zaiola datozen urteotan.

Gipuzkoa berritu baten etorkizun-ikuspegia Lurraldeko zein geure inguruko gainontzeko eragile eta pertsonekin eraiki eta partekatu behar dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren belaunaldi arteko konpromisoaren eta epe ertain-luzerako plangintzaren oinarri gisa.

Xede horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri du Gobernantza Onerako Estrategia 2015-2019 epealdirako, **“gobernatzeko moduak eraldatzeko eta Gobernantza Ona Gipuzkoako Foru Aldundiaren nortasun-ezaugarri bihurtzeko”** xedez.

Herritarrak eta gizarte-eragileak zein aktoreak deliberazio publikoan eta politika publikoen garapenean sartzeari du helburu, **partaidetza eta komunikaziorako bide berriak urratuz.** Horrez gain, Foru Erakundearen lan-metodoak eta kudeaketa-sistemak modernizatu eta hobetzeko apustua egin nahi du.

Herritarren partaidetza kudeaketa publikoan txertatzeak konfiantza hori sortzen laguntzen du hainbat alderdi lortzen baititu: **gobernuak indartu, politika publikoak legitimatu, gizartearen aniztasuna barnean sartu, gizarte-interesak agenda publikoan sartzen lagundu, herritarrak bizitza publikoaren antolamendu-prozesuetan txertatu eta gizarte zibilaren eginkizuna sendotzea.**

Eraldatzeko asmoa dago gizartea osatzen duten pertsonak erdigune bihurtuz, eta herritar-zentzua zein bertakoa izatearena sustatuz baita ingurunearekiko eta guztion onarekiko konpromisoa ere.

Eraldaketa horiek guztiek **erronka estrategikoak** mahaigaineratzeaz gain, aukera ezin hobeak eskaintzen dizkiote Gipuzkoa bezalako lurralde bati.

Geure buruari jarri diogun erronka nagusietako bat da **gobernatzeko moduak eraldatu eta Gobernantza Ona Gipuzkoako Foru Aldundiaren nortasun-ezaugarri bihurtzea**. Politikaren zentzu etikoa blindatzeko unea da, gizarteari **zerbitzatzeko konpromiso publikoa hartzeko unea, aitzindaritza ulertuta, ez botere eta aginte gisa, baizik eta gipuzkoar komunitate askotarikoari zerbitzatzeko gaitasun partekatu gisa**.

Demokraziaren kontzeptuan sakontzen duen politika egiteko modu berri bat da auzi publikoetan aktore gehiagoren eta askotarikoagoen presentzia errazten baitu. Horrez gain, erakundeak bultzatzen ditu entzun, elkarriketan aritu eta, azken batean, **elkarlanean jarduteko konpromisoa hartzera, herritarrek erakundeetara zabaltzen eta hurbiltzen laguntzen du** eta herritarren eta ordezkatzeko dituzten kargu politikoen arteko lotura ahalbidetzen du.

Helburu eta lehentasun horiek betetzeak **Gobernantza Eredu ireki eta lankidetzazkoa diseinatzera garamatza**. Oinarrian pertsonak eta honako elementu hauek dituen eredia hain zuzen: **eraldaketarako aitzindaritza, gainontzeko erakundeekin eta gizarte antolatuarekin partekatua; lankidetzazko publiko-pribatua proiektu estrategikoak bultzatzeko**; Gipuzkoako Foru Aldundiaren talde politiko eta teknikoaren lankidetzazko aktibo eta protagonista gobernu-jardueraren lehentasunen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, betiere erantzukizun- eta gardentasun-irizpideetatik zein baliabide publikoen erabilera eraginkorra bultzatuta; eta **herritarrekiko nahiz Lurraldeko gainontzeko eragile ekonomiko eta sozialekiko etengabeko elkarrekintza**.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 epealdiko Kudeaketa Plan Estrategikoak proposatzen du Gobernantza **Eredu ireki eta lankidetzazkoa**, oinarrian pertsonak eta ondoko elementuak dituen:

- ✓ **eraldaketarako aitzindaritza**, gainontzeko erakundeekin eta gizarte antolatuarekin partekatua.
- ✓ **lankidetzazko publiko-pribatua** proiektu estrategikoak bultzatzeko.
- ✓ herritarrekiko nahiz Lurraldeko gainontzeko **eragile ekonomiko eta sozialekiko etengabeko elkarrekintza eta deliberazioa**.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren **talde politiko eta teknikoaren lankidetzazko aktibo eta protagonista gobernu-jardueraren lehentasunen jarraipena eta ebaluazioa egiteko**, betiere zorrozetasun-, erantzukizun- eta gardentasun-irizpideetatik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurre eman dio erronkari eta bere Kudeaketa Plan Estrategikoan, 2015-2019 epealdikoan, onartu du garai berri honek eskatzen duela **Gipuzkoako Foru Aldundi moderno, eraginkor, hurbileko eta apal bat abian jartzea, oinarritzeko**

printzipiotzat honakoak dituen: adostasunak bilatzea, aitzindaritza partekatua, austeritatea, Gobernantza Ona eta entzuteko gaitasuna. Halaber, **egin beharreko lehentasunak identifikatzeko eta irtenbide eraginkorrak planifikatu eta abian jartzeko gai izan behar da.** Garai berri bat, Lurraldea modernizatzeko aurrean ditugun erronka estrategiko garrantzitsuei ausardiaz eta erabakitasunez heltzeko, eta guztiok elkarrekin lan egiteko Gipuzkoaren etorkizunerako proiektu ilusionagarri bat eraikitzen, **lehiakortasun-, elkartasun-, kohesio-, lankidetzaz, erantzukizun- eta ongizate-printzipioetan oinarrituta.**

Gobernantzaren ideiarene itzulpen grafikoa da Gipuzkoan **“gobernatzeko modu berri bat”** ezarri nahi dela. Modu berri horrek erakundearen barneko erronkez ez ezik, **erakundearen arteko harremanez ere arduratzen da baita gizarte zibilarekin konpromisoak eta harremanak ehuntzeaz ere.** Horri esker, gizarte zibila partaide bilakatzen du foru politika publikoak, bereziki sektoreetakoak, bultzatu, diseinatu, burutu eta ebaluatzeko prozesuetan.

Gobernantza-nozioaren **barruan gardentasuna, datuak irekitzea, eraginkortasuna, efizientzia, finantza-iraunkortasuna, herritarren partaidetza** edota kontuak ematea bezalako arloak sartzen dira.

2015-2019 epealdiko Kudeaketa Plan Estrategikoak proposatzen du aurrekontuak sortzeko prozesua osotasunean berraztertzea (Helburuei begirako Aurrekontua edota Emaitei begirako Aurrekontua). Bertan, **lan-ildo berri bati ekiteko beharra azaltzen da, aurrekontuak sortzeko gaur egunean abian jartzen den prozesua berriro aztertu eta emaitzei begirako aurrekontu berri bat eraikitzeko xedez.** Hau da, esleitutako baliabideak eta lortu nahi diren emaitzak modu esplizituan uztartzen dituen aurrekontua osatu nahi da. Ekimen berritzailea litzateke Gipuzkoako Foru Aldundian, lortu nahi diren helburuak esplizitu egitea eskatuko lukeena. Horrek honakoak dakartza berekin: **plangintza estrategikoarekiko lotura, emaitzen jarraipen, ebaluazio eta aurkezpena, emaitzei buruzko informazioaren erabilera, kultura-aldaketa, eta abar.**

Aurrekontu Irekien ekimenaren bitartez **Foru Aurrekontuak osatzeko prozesuan herritarrek zinezko partaidetza izatea da Gipuzkoako Foru Aldundiak Herritarren Partaidetzarako Legealdi Planaren barruan azaldu duen apustu bat.** Horren bitartez, herritarrek ere balio publikoaren sorkuntzan erantzukizuna hartzea lortu nahi da, **gizartea osatzen duten pertsonak ardatz bihurtuz eta herritar-zentzua zein bertakoa izatearena sustatuz, baita ingurunearekiko eta guztion onarekiko konpromisoa ere.** Gizarte gipuzkoar osoa ahaldundu nahi da (bere aberastasun eta aniztasun handiak aintzat hartuta), jakitun izan dadin berari dagozkion auzi politiko eta publikoen gaineko erabakietan parte hartu eta eragina izatea daukan eskubidea dela eta, aldi berean, **gizarte hau osatzen dugun guztion betebeharra.**

I. PARTAIDETZA-PROZESUA TESTUINGURUAN JARTZEN

1. Zergatik egin aurrekontu irekiak?
2. Zein izan da partaidetza-prozesuaren egutegia?
3. Zein izan da komunikazio estrategia?
4. Nola sustatu da partaidetza?
5. Zer galdetu da aurrekontu irekietan?
6. Zein berritasun dakartza partaidetza-prozesu honek?



1. Zergatik egin aurrekontu irekiak?

Aurrekontu irekiak egitea helburu duen partaidetza-prozesu bat abian jartzeak berekin dakar gure bizilagunak modu zuzen eta gardenean sartzeari tartean lurralde historikoaren kudeaketan. Zentzu horretan, herritarren partaidetzan sorburu duten aukerak eta abantailak era askotakoak dira eta laguntzen dute Foru Aldundi moderno, eraginkor, garden eta, batez ere, herritarrekiko gertu bat erdiesten. Beraz, honakoak lortu nahi dituen prozesu batez ari gara:


- Herritarrak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin konektatzea, bere eginkizuna eta kudeaketa ezagutaraziz.
- Gure bizilagunen lehentasunak eta beharrak ezagutzea baita guztion benetako eskaerekin bat datozen konponbideak eskaintzea ere.
- Gipuzkoaren egunerokoan gizartearen protagonismo aktiboa bultzatzea eta horri esker herritarrak lurraldeko bizitza publikoaren ikusle hutsak izan ez daitezen lortzea.
- Herritar ahaldunduekiko kudeaketa publikoan eraginkor, arrazoizko, efiziente eta gardena den Foru Aldundia sendotzea.
- Hausnarketa aktibo, eztabaida eta elkartasunerako bideak irekitzea, herritarrak eta Foru Aldundiaren arteko elkarriketa zein komunikazioa hobetzen lagunduko dutenak.
- Aurrekontu irekiak eta herritarrek, ordezkari politikoek zein teknikariek kontrastatuak onartzea.

2. Zein izan da partaidetza-prozesuaren egutegia?

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurrekontu Irekiak 2017 izeneko ekimenaren hasierako egutegiaren arabera, prozesua ekainean zehar egitekoa zen. Hala ere, Hauteskunde Orokorrak ekainaren 26ra aurreratzeak partaidetza-prozesua atzerarazi zuen, eta, azkenean, irailean burutu zen prozesua.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskundeek data irailaren 25era aurreratzeak antolatutako egutegia aurrerarazi zuen, bai triptikoak postontzietan banatzeari dagokionez (hasieran, irailean zehar egin behar zen, udalerrri bakoitzean karpak ipini eta aurreko astean) bai herritarren aurrez aurreko zein alegiazko partaidetzari berari dagokionez, kapitulu honen 4. puntuan adierazten den bezala.

Labur esanda, aurrekontu irekietarako partaidetza-prozesuak bost fase ditu, ondoren zehaztuko direnak:



Aurrekontu irekietarako partaidetza-prozesua gauzatzeko ezarri den egutegiaren arabera, txosten hau bigarren eta hirugarren faseen artean dago; hau da, prozesuan parte hartu duten bizilagunek adierazitako emaitzak zein ondorioak biltzen dituen txostena da eta, aldi berean, aukera ematen du 2017ko aurrekontuen lehenengo zirriborroa, herritarrek kontrastatua, egiteko.

3. Zein izan da komunikazio-estrategia?

Prozedura-hitzartuaren bidezko lizitazio-prozesu baten ostean, Propaga enpresak lortu zuen komunikazio-estrategiaren diseinuaz arduratzeko esleipena. Enpresak bi komunikazio-bide nagusi proposatu zituen gizarte gipuzkoarrean aurrekontu irekiei buruzko ekimena hedatzeko helburuz. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Eusko Legebiltzarrerako 2016ko Hauteskundeak

aurreratzeak eragina izan zuela komunikabideetan ekimenaren publizitatea egiteko hasierako estrategian eta bi fase ezarri ziren:

Aurrekontu Irekiak gizarteratzeko komunikazio kanpainak bi fase eta bi ekimen-mota izan ditu. Komunikazioa bi alditan egin da, tartean euskal hauteskondeek eragindako etenarengatik.

Guztira, ekimenak, bi izan dira:

- 1. Publizitate eta hedabideei lotutakoak**
- 2. Gizarteratzeko ekimen publikoak**

1. ESTRATEGIA: PUBLIZITATE ETA HEDABIDEAK.

- **LEHEN FASEA [ABUZTUAK 26 – IRAILAK 9]**

Aurrekontu Irekiak 2017 ekimena hedabideen aurrean abuztuaren 31n aurkeztu zuen Imanol Lasa, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatuak, Foru Aldundiko prentsa aretoan. Aurkezpen honek Gipuzkoa mailako egunkari guztietan izan zuen oihartzuna. Prentsaurreko horretan partaidetza prozesua azaldu zen eta esku-orrien banaketa (abuztuaren 26an hasi eta irailaren 7an amaitu zen), partaidetza webgunea (abuztuaren 26an abiatua) eta informazio karparen egutegia aurkeztu ziren eta dosierra banatu zitzaien kazetariei. Prentsaurrekoaren atariko bezala, abuztuaren 29an, Diario Vascok Imanol Lasari egindako bi orriko elkarriketa argitaratu zuen.

Prentsaurrekoa egin eta bi astetan, publizitate kanpaina egin zen (lehen zatia). Irailaren 4an, publizitatea sartu zen Noticias de Gipuzkoa eta Diario Vasco egunkarietan eta bi aste horietan sare sozialetan (Aldundiaren Facebook-eko kontuan eta Twitterren Imanol Lasaren kontuan eta Aldundiarenean) egitasmoa aurkezteko eduki multimediak zabaldu ziren, prozesua eta partaidetza webgunea promozionatzeko. Amaitzeko, irailaren 9an, Noticias de Gipuzkoak Imanol Lasaren iritzi artikulua kaleratu zuen, Aurrekontu Irekiei buruzkoa.

- **BIGARREN FASEA [IRAILAK 26 – URRIAK 14]**

Herriz herriko kanpainarekin batera, publizitate kanpaina zabalagoa egin da. Irailaren 26tik urriaren 1era bitartean Noticias de Gipuzkoa, Diario Vasco, Berria eta Gara egunkarietan insertzioak egin dira eta Tokikom sareko Gipuzkoako tokiko aldizkari guztietan eta

Gipuzkoako Hitzaren edizioetan jarri da publizitatea. Irrati iragarkiak ere jarri dira irailaren 26tik urriaren 11ra arte Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Cadena SER (Gipuzkoa) eta Onda Vasca Gipuzkoan. Osagarri bezala, elkarrizketak grabatu dira TeleDonosti (irailak 28) eta Hamaika Telebista Gipuzkoan (urriak 4).

a) PRENTSA INSERTZIOAK

Diario Vasco: 2 orri oso. (elebitan)

Noticias de Gipuzkoa: 2 orri oso. (elebitan)

Berria: orri oso 1. (euskaraz)

Gara: orri oso 1. (elebitan)

Tokiko euskarazko aldizkariak (Tokikom): 15 goiburu orrialde osoa betez (euskaraz).

Gipuzkoako Hitzak: 5 goiburu orrialde osoa betez. (euskaraz).

b) IRRATI IRAGARKIAK

Radio Euskadi: 33.

Euskadi Irratia 33.

Cadena Ser Gipuzkoa: 33.

Onda Vasca Gipuzkoa: 22.

2. ESTRATEGIA: HERRIZ HERRI, PARTAIDETZA KARPA ETA EKITALDI PUBLIKOAK

Gipuzkoako 16 udalerritan jarritako karparen komunikazioa tokiko prentsaren eta sare sozialaren bidez jakinarazi da eta gizarteratze-ekitaldien berri ere eman da horietan. Udalerrietan 7 prentsaurreko egin dira, tokiko hedabideentzat. Guztietan Imanol Lasa foru bozeramaileak hitz egin du.

Aurrekontu Irekiak 2017 ekimena honako topaketetan aurkeztu da, herriz herriko kanpainarekin paraleloan, eta Imanol Lasa diputatuak eta Joseba Muxika, Partaidetza zuzendariak hartu dute parte. 13 ekitaldi publiko antolatu dira eta 542 pertsonatik gora izan dira parte-hartzaileak, profil ezberdinetakoak:

DATA	EKITALDIA	HERRIALDEA
Irailak 27	Azpeitiko elkarte eta auzo elkarteekin topaketa	Azpeitia
Irailak 28	Debabarreneko erretiratuekin topaketa	Eibar
Irailak 29	MU-ko Komunikazio ikasleekin lan-saioa	Aretxabaleta
Irailak 30	Urola kostako enpresari eta ekintzaileekin bilera	Zarautz
Irailak 30	Cáritas Gipuzkoarekin topaketa	Donostia - SS
Urriak 5	Andoaingo gizarte elkarte eta kirol taldeen ordezkariekin bilera	Andoain
Urriak 5	Ekintza Ikastolako Batxilergoko ekonomia eskolan aurkezpena	Donostia - SS
Urriak 6	Debagoieneko erretiratuekin topaketa	Arrasate
Urriak 6	Goierriko erretiratuekin topaketa	Zegama
Urriak 10	Donostialdeko eta Oarsoaldeko erretiratuekin topaketa	Trintxerpe
Urriak 11	Lanbide heziketa ikasleekin topaketa	Bergara
Urriak 11	Emauseko ordezkariekin batzarra	Irun
Urriak 13	Eskola kirol eta kirol taldeekin eta gurasoekin topaketa	Urretxu

4. Nola sustatu da partaidetza?

Gipuzkoako bizilagunek, 16 urtez gorakoak eta lurralde historikoan erroldatuak izanez gero, aukera eduki dute jarduera-ildoak lehenetsi eta hainbat proiektu politikoren artean gogokoen dituztenak adierazteko.

Ondoren zerrendatuko dira jarduera-ildoak eta proiektu politikoak aukeratzeko ezarri diren partaidetza-bideak:

1. Xede horretarako banatu diren 285,000 liburuxken bitartez.
2. gipuzkoa.eus/irekia/partaidetza webgunearen bidez.
3. Aurrez aurre, partaidetzarako karpetan.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sare Soziales bitartez (Facebook eta Twitter).

5. Foru Aldundiko Erregistroan, tokiko Erregistro publikoetan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan.

2017ko Aurrekontu Irekietarako partaidetza-prozesua 2016ko irailaren 1etik urriaren 14ra bitartean gauzatu da herritarren partaidetzarako fasean. Kanpainak herritarrengan eragin nabarmena izan dezan lortu nahi izan da eta horretarako herri-sorta batean herritarrei partaidetzarako aukera eman zaie bai bide birtualak erabiliz (teknologia-arloan gaitasuna duten gizarte-mailei zuzenduta bereziki) bai aurrez aurrekoak erabiliz, partaidetzarako karpen bitartez (16 egunez jardunean).

Ondoren, prozesuan zehar partaidetzarako abian jarri diren karpen zerrenda zehaztuko da; horien bitartez, Gipuzkoan erroldatutako bi pertsonatik batengana heltzeko aukera egon da.

DATA	UDALERRIA	BIZTANLERIA (Eustat 2015)
26 – 09	Zumaia	9.718
27 – 09	Azpeitia	14.822
28 – 09	Eibar	27.204
29 – 09	Errenteria	39.813
30 – 09	Zarautz	22.915
01 – 10	Donostia	180.291
03 – 10	Urretxu	6.958
04 – 10	Andoain	14.883
05 – 10	Billabona	5.737
06 – 10	Arrasate	21.933
07 – 10	Ordizia	9.483
08 – 10	Tolosa	18.993
10 – 10	Oñati	11.202
11 – 10	Bergara	14.949
12 – 10	Irun	59.624
13 – 10	Elgoibar	11.468
GUZTIRA		469.993 (% 66,2)

Karpak bideratzeaz arduratu ziren partaidetza arloan lan egiten duten adituak. Horrez gain, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatuak, Imanol Lasa, eta Joseba Muxika, Partaidetza zuzendariak, hartu dute parte. Goizez eta arratsaldez (10:00 – 19:00¹) egon ziren jardunean karpak; han prozesuan interesa zuten herritarrei honako gaiak helarazi zitzaizkien:

- ✓ Zer diren Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontuak.
- ✓ Zergatik aukeratu diren oraingo datak partaidetza-prozesua gauzatzeko.
- ✓ Aurrekontuak herritarrekin kontrastatzea dakarren ekimenari ematen zaion garrantzia.
- ✓ Partaidetza gauzatzeko antolatu diren bideak.
- ✓ Herritarrek honakoei lotuta zituzten zalantzak argitu ziren: prozesua, jardueraildo politikoen lehenespena eta proiektuen aukeraketa.
- ✓ Laguntza eskaini zen galdera-sortak azaltzen dituen ariketak betetzeko.
- ✓ Adore eman zitzaaien herritarrei kontraste-prozesu aberasgarri eta ireki honetan parte hartzeko.

Informazio guneak, edota partaidetzarako karpak, erabiltzearen osagarria da lurralde historikoko biztanleei prozesuan parte hartzeko aukera emateko helburu esplizitua. Hori dela eta, 285,000 liburuxka banatu ziren postontzietan lurralde osoan, partaidetzarako karpak jarri ez ziren udalerrietan partaidetza ahalbidetzeko asmoz. Era berean, partaidetza-liburuxka, aurrekontu irekietarako ariketa barnean zuela, postontzietan banatzeak bide eman zien bizilagunei tokiko erregistro publikoetara, Foru Aldundiko erregistrora eta partaidetza-karpetara liburuxka helarazteko.

Labur esanda, partaidetzarako hainbat teknika eta modu (bereziki aurrez aurrekoa eta online) bateratzeak aukera eman du herritarrek 2017ko Aurrekontu Irekietarako prozesura errazago hurbil daitezen hainbat bideren bitartez. Horrek bermatzen du Gipuzkoako gizartearen osatzen duten maila sozial desberdinetarako diskriminatzaile izango ez den partaidetza eraginkorra lortuko dela.

5. Zer galdetu da aurrekontu irekietan?

2015 – 2019 epealdiko Kudeaketa Plan Estrategikoaren alorrean, herritarrek 2017ko Aurrekontu Irekietan hartu dute parte bi ariketaren bidez beren iritzia jakinaraziz:

¹ Donostiako ordutegia 11:30 -19:00 izan zen.

- **Jarduera-ildoak lehenetsiz**
- **Proiektuak aukeratuz**

A) JARDUERA-ILDOAK LEHENESTEA

2015-2019 epealdiko Kudeaketa Plan Estrategiakoaren alorrean 50 helburu ezarri dira eta lehentasunezko 175 jarduera-ildo, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernu-jarduera bideratzeko adierazle gisa baliagarri izango direnak. Jarduera-ildo horiek Foru Erakundea osatzen duten Departamentuen barruan kokatzen dira eta jomuga zenbagarri bati daude lotuta. Jomugak agerian jartzen du jarduera-ildoen zinezko betetze- eta gauzatze-maila; horri esker lor daiteke kontu emate eraginkor eta garden bat.

Zehazki, aurrekontu irekietarako prozesuaren bidez herritarrek 10 jarduera-ildo lehenetsi ahal izan dituzte, ildoek 1etik 10erako puntuazioa emanaz ("1" lehentasun handiena adierazten zuelarik). Halaber, webgunearen bitartez parte hartu duten lagunek jarduera-ildoak lehenetsi ahal izan dituzte aurrekontua euren lehentasunen arabera antolatuz.

Ondoren, herritarrek lehenetsitako jarduera-ildoak zehaztuko dira:

1. Gizarte Zerbitzuak: 345.378.480 euro • % 42,52

Pentsioak eta prestazioak, desgaitasunak dituztenentzako arreta, edadetuei, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta, adingabeen eta nerabeen babesa, kooperazioa, gizarte-politikak.

2. Lurralde oreka: 19.936.435 euro • % 2,45

Herri eta hirien zaharberritzea, lurzorua kudeaketa, udalerri txikiei laguntza eta lurralde antolamendua.

3. Garraio-azpiegiturak: 78.144.655 euro • % 10

Gipuzkoa osoko errepideen eta garraio-azpiegituren eraikuntza, mantentze eta hobetze lanak.

4. Herritarrak: 67.285.017 euro • % 8,28

Euskara, genero berdintasuna, gizarte-partaidetza, komunikazioa, garapenerako kooperazioa, elkarbizitza eta giza eskubideak.

5. Ingurumena eta uraren kudeaketa: 23.928.286 euro • % 2,95

Hondartzen garbiketa, hondatutako inguruen berreskurapena, efizientzia energetikoa, iraunkortasuna, hondakinen bilketa, uraren kalitatea, azpiegitura hidraulikoak.

6. Mugikortasun iraunkorra: 42.122.569 euro • % 5,19

Bidegorriak eta garraio publikoaren antolamendua.

7. Zergak, zorra eta iruzurraren aurkako borroka: 120.029.728 euro • % 14,78

Zergak eta ogasun politika, aurrekontuak, finantzen gestioa eta zorraren ordainketa.

8. Nekazaritza, abeltzaintza eta mendiak: 30.978.526 euro • % 3,81

Landa garapena, nekazaritzari eta abeltzaintzari laguntza, mendien zaintza eta habitaten kudeaketa.

9. Enpresen lehiakortasuna eta berrikuntza: 35.211.667 euro • % 4,33

Lehiakortasunaren eta nazioartekotzearen sustapena, turismoaren promozioa, zientziarena, teknologiarena eta berrikuntzarena.

10. Kultura, gazteria eta kirola: 49.276.620 euro • % 6,07

Kultura, ondare artistikoa, artxibategiak eta museoak, gazteria eta kirolaren sustapena.

B) PROIEKTUAK AUKERATZEA

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza, Aurrekontuetarako Zuzendaritza eta Estrategiarako Zuzendaritza arduratu ziren Foru Aurrekontu Irekiak osatzeko erabiliko zen partaidetza-metodologia zehazteaz.

Metodologiak lehenengo pauso gisa xedatu zuen Lan Talde bat eratzea Foru Aurrekontu Irekiak kudeatzeko. Zehazki, talde horren ardura izan zen prozesuan garatu ahal ziren proiektuek burutu beharreko betekizun kualitatibo eta kuantitatiboak zehaztu eta definitzea. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak, betekizunei buruzko informazioa jasotakoan, kontrastatu zituen esandako betekizunak eta, ondoren, lehenago aipatutako Lan Taldeak behin betiko onartu zituen.

Era berean, Zuzendaritza Nagusiek, aldez aurretik, prozesu honen baitan zehaztu edota garatu ahal ziren beren eskumeneko proiektuak identifikatu eta aukeratu zituzten. Oro har, aintzat hartu zen Aurrekontu Irekiak 2017 ekimenean gauzatutako herritarren partaidetza-prozesutik jaiotako proiektu guztiek erabateko koherentzia izan behar zutela 2015-2019 epealdiko Kudeaketa Plan Estrategikoaren helburu eta estrategia-ildoekin.

Amaitzeko, Foru Aurrekontu Irekiak kudeatzeko Lan Taldeak lehentasunen inguruko txosten bat egin zuen; bertan azaldu zituen Zuzendaritza Nagusiek aurkeztutako proiektu guztietatik behin betiko 16 proiektuak aukeratu izanaren arrazoiak, horretarako, lehenago aipatutako irizpide kuantitatibo zein kualitatibo jarraituz.

Jarraian agertuko dira azaldutako proiektuak:

1. Lankidetzak: Besarkadak (90.000 euro)

Gipuzkoan bizi diren migrante eta errefuxiatuen ekarpena balioan jartzea, dituzten gaitasunak ezagutzera eman eta tokiko biztanle eta kolektiboekin elkarlana ahalbidetzeko.

2. Mugikortasuna eta garraio publikoa: Mugikortasun Iraunkorra Gipuzkoan (58.000 euro)

Eskualdeetako jarduera turistikoa eta bizikleta bideen erabilera ezagutu, hauek sustatu eta balizko ustiapen turistikoa baterako.

3. Kultura: kultura bonua (150.000 euro)

Kulturaren kontsumoa pizteko bonuen igorpen berria. Bertako kultur sormenean eragiteko helburu bereziarekin.

4. Ingurumena: Agenda 21 garapena (100.000 euro)

Ingurumen politiken kudeaketarako esperientzia pedagogikoak gauzatzeko ekimen publikoen garapena.

5. Bide azpiegiturak: Antzuola-Bergara obra (55.500.000 euro)

Tarte horretan dagoen saihesbidearen obrarekin Gipuzkoako Biribilgunea bukatuko da. Gipuzkoako edozein puntutik 15 kilometrora gehienez gaitasun handiko errepide bat egongo da.

6. Gobernantza: Leihatila europarra (100.000 euro)

Europa mailako diru-laguntzak eskuratzeko aholkularitza teknikoa udalentsat, Foru Aldundiarentzat eta tokiko garapen agentzientzat.

7. Sustapen ekonomikoa: Txekin/Emekin (1.060.000 euro)

Enpresa berriak sortzeko babesa eta laguntza, emakume ekintzaileei eta langabeei zuzenduta.

8. Sustapen ekonomikoa: Langile partaidetza enprekin (2.000.000 euro)

Enpresetako antolamendu mota berrien sustapena, langileen erabakitze ahalmena areagotuz.

9. Nekazaritza eta landa garapena: Nekazari gazteek enpresak sortzea (675.000 euro)

Belaunaldien erreleboa erraztu eta sektorea gaztetzeko helburuarekin, proiektuen finantziarioz arduratuko da Aldundia.

10. Gazteria: Natura, kirol eta kultur udalekuak (650.000 euro)

Disfrutatzen ikasteko udalekuak, naturarekin harremanak, kirolak eta kulturak ematen dituzten baloreetan heziz.

11. Berrikuntza: Industria eta 4.0 Tailerrak (400.000 euro)

Industria Aurreratuen analisisa eta sustapena, tailerren bidez, enpresa txikiak lehiakorrago izan daitezen.

12. Berdintasunerako Organoa: Jakitun (100.000 euro)

Gipuzkoan berdintasun gaitan eskaintzen den berdintasuneko oinarritzko prestakuntza modu bateratu eta koordinatuan eskaintzea.

13. Bizikidetza: Bizikidetza lantzen (300.000 euro)

Udal mailan bake, bizikidetza eta giza eskubideen politikak sustatzeko foru-programa abiatzea.

14. Gizarte zerbitzuak: Mendekotasunari aurre egiteko zentroak (1.164.062 euro)

Mendekotasunari aurre egiteko zentro berriak eta zerbitzu berriak ipiniko dira martxan Gipuzkoan.

15. Ogasuna eta finantzak: Iruzur fiskalaren aurkako programa (1.350.000 euro)

Bitarteko materialen eta informatikoen hobetze programa, iruzur fiskalari aurre egiten laguntzeko.

16. Modernizazioa: Administrazio elektronikoa (300.000 euro)

Gipuzkoako Foru Aldundi osoan administrazio elektronikoa ezartzea, tramitazio guztiak elektronikoki egin ahal izateko.

6. Zein berritasun dakartza partaidetza-prozesu honek?

Jarduera-ildoak lehenetsiz eta proiektuak aukeratuz herritarrek abagunea izan dute 2017ko Aurrekontu Irekiak osatzean dituzten lehentasunak eta beharrak adierazteko. Gipuzkoako Foru Aldundiak ekitaldi honetan irizpide nahikoak edukiko ditu aurrekontuen inguruan lurraldeko bizilagunen ikuspuntua kontrastatu ahal izateko. **837,94 milioi euroko aurrekontua** da, jarduera-ildo politikoak sustatu eta garatzeko, hau da, Aldundiak berezko duen eta bere politiketarako gordetzen duen aurrekontua.

Nabarmentzekoa da 2017ko Aurrekontu Irekiak partaidetza-prozesu landu eta garantista baten ostean gauzatuko direla. Foru Erakundearen partaidetza-atarian adierazten den bezala, herritarrekiko komunikazio-estrategia berri bat dakarte baita publizitate aktiborako estrategia

berri bat ere. Era berean, lurralde historikoaren beharren arabeko epeak ezartzen dituzte. Azken finean, prozesuak era integral batean eta koherentzia zein gardentasun handiagoz ematen die erantzuna herritarren partaidetzarako eta beraiei arreta emateko sortu diren bideen bitartez (aurrez aurrekoak zein alegiazkoak) proposatutako ekimenei.

Beste alderdi batzuk ere azpimarratu behar dira: Gipuzkoako bizilagunen egunerokoan eragina eta interesa sortzen dituzten proiektu eta ekimenen ezarpena, benetako beharretara moldatutako metodologia baten mailakako egokitzapena eta herritarren partaidetzari zein ahalduntzeari lotutako hobetze-irizpideen adierazpen berria.

1. Metodologia

1. Partaidetza-mailaren analisia
2. Jarduera-ildoak lehenesteari buruzko analisia
3. Proiektuak aukeratzeari buruzko analisia
4. Fitxa teknikoa



Hartu den metodologia-ikuspuntua bat dator datu estatistikoen azterketarako erabili ohi diren ikerketa-teknika kuantitatiboekin. Xede horretarako, kalkulu estatistikoak ezarriko dira, lurraldean lagin adierazgarri baterako emaitzen izaera zehaztuko dutenak.

1. Partaidetza-mailaren analisia

Laginaren tamaina osatuta dago 2017ko Aurrekontu Irekietarako prozesuan antolatutako bideen bitartez galdera-sorta egoki bete duten partaideen kopuruaz; betiere partaideak 16 urtez gorakoak badira eta Gipuzkoan erroldatuta badaude.

Lagina errolda-datu ofizialekin kontrastatuko da (Eustat - INE - EPA), prozesuko partaidetza-maila zein izan den jakiteko asmoz. Gainera, bereizita, ondoko adierazle eta aldagaien arabera hartuko da aintzat partaidetza:

- Onlineko partaide-kopurua karpetan aurrez aurre parte hartu duen kopuruaren edota liburuxka igorri duenaren aldean.
- Parte hartu duten emakumezkoen kopurua gizonezkoen kopuruaren aldean.
- Laginaren adinaren batez bestekoa.

Ohar metodologikoa: Jasotako datuak bahetuz lortuko dira emaitzak (aurrez aurre zein online). Halaber, adinaren batez besteko globala egingo da eta laginaren banaketa geografikoari erreparatuko zaio (aurrez aurreko prozesuan).

2. Jarduera-ildoak lehenesteari buruzko analisia

Azaldutako 10 jarduera-ildoak lehenesteari buruzko emaitzak lortzeko lehenengo ildo bakoitzari emandako pisua hartuko da aintzat: 10 puntu pisu gehien daukan balioari (1) emanez eta puntu 1 pisu gutxien daukanari (10).

Onlineko erantzunei dagokienez, partaideek molda dezakete jarduera-ildoen aurrekontua ildo bakoitzari emandako lehentasunaren arabera ($\pm$ % 5). Kasu horretan, ildo bakoitzaren batez besteko aritmetikoa ($\bar{x}$) egingo da eta horrela lortuko dira hainbat desbiderapen, ariketa hori bete duten herritarren aurrekontu-lehentasunak adieraziko dituztenak.

3. Proiektuak aukeratzeari buruzko analisia

8 proiektuen aukeraketari buruzko analisia, 16 ekimen biltzen dituen katalogoa barnean duena, aukeratutako kasu guztien zenbaketa lortuz egingo da. Kasu horretan, proiektu bakoitzeko funtzio batukari bat (Σ) egingo da, eta, horrela, sailkapen hierarkizatu bat ezarriko da, gehien aukeratu denetik hasi eta gutxien aukeratu denean amaituta.

4. Fitxa Teknikoa

Unibertsoa: 618,256 (2014/12/31ko errolda, Gipuzkoan erroldatutako 16 urtez gorako pertsonak) [318,054 emakumezko eta 300,202 gizonezko]

Laginaren neurria: 1,547 biztanle

Laginketa-metodoa: Laginketa ausazko sinplea

Konfiantza-maila: Kalkulurako erabili den konfiantza-maila % 95ekoa da (% 95eko aukera dago akats-marjina lagin-neurri horretarako kalkulatu dena izan dadin)

Akats tartea: 618,256 biztanleko populaziotik 1,547 pertsonak osatzen dute lagina, horren ondorioz, gehienezko akats-marjina $\pm$ % 2.5koa da

Informazio-bilketa: Karpetan, liburuxkak igorritz eta online egindako ekarpenak.

Exekuzio-datak: 2016ko irailaren 1etik urriaren 14ra.

2. Partaidetzari buruzko datuak: emaitzak

1. Partaidetzari buruzko emaitza globalak
2. Aurrez aurreko partaidetzaren banaketa
3. Partaidetza generoaren arabera
4. Adinaren batez bestekoa



1. Partaidetzari buruzko emaitza globalak

2017ko Aurrekontu Irekietarako partaidetza-prozesuaren emaitza izan da **1547 bizilagunek osatu dutela azkeneko lagina**; kopuru horrek bete baitzuen, ekimenaren barruan atondutako bideren bat erabiliz proposatutako ariketaren bat (**ekarpenak barne**).

Laginarene neurria (N) **1547** biztanle


Proiektuak aukeratzeko eta jarduketa-ildoak lehenesteko ariketetako baten bat egin zuten herritarrak bakarrik aintzat hartuta (N: 1387, ekarpenak alde batera utzita), desberdintasun nabarmena azaldu da: karpetan argi gailendu da proiektuak aukeratzeko ariketa eta, on line, jarduera-ildoak lehenestekoa.

PARTAIDETZARI BURUZKO EMAITZA

(Proiektuak eta Jarduera Ildoak)

PARTAIDETZA ARIKETA	PARTE-HARTZAILEAK
PROIEKTUAK (Aurrez Aurre)	1205
PROIEKTUAK (Online)	175
JARDUERA ILDOAK (Aurrez Aurre)	1132
JARDUERA ILDOAK (Online)	182

Laginarene partaidetza osoa aintzat hartuta (N: 1547), % **89k** bete zuen **proiektuak aukeratzeko ariketa**, aurrez aurre zein online. **Jarduera-ildoak lehenesteko ariketari dagokionez, % 85k egin du**, aurrez aurre zein online.




Lagina osatu da herritarren partaidetza posible, eskuragarri eta egingarri egiteko atondutako kanalen bitartez **ekarpenak helarazi zituzten pertsonekin**.

2. Aurrez aurreko partaidetzaren banaketa geografikoa

Galdera-sorten bidalketa kudeatu duten teknikariek emandako datuen arabera, **Foru Aldundiaren Erregistroak eta tokiko foru erregistro publikoek** jaso zuten galdera-sorten kopururik handiena.


Halaber, analisi bereizia egiten badugu udalerrika, **Ordizia, Donostia eta Irun izan dira partaidetza-maila handiena** lortu duten herriak. Aitzitik, **Pasaia, Villabona eta Azpeitia** jasotako galdera-sortek **partaidetza-maila txikiena azaldu dute**.



3. Partaidetza generoaren arabera

Estatistikak generoaren arabera azaltzen dituen analisi kuantitatiboak bereizi aztertu behar ditu aurrez aurreko modalitatean zein online proposatutako lau ariketak (N:1387).


Zentzu horretan, **emakumezkoen partaidetza** gizonezkoena baino nabarmen handiagoa izan da **aurrez aurreko bideetan**. Aitzitik, **gizonezkoen partaidetza** aktiboagoa izan da 2017ko Aurrekontu Irekien **alegiatzko modalitatean**.



4. Adinaren batez bestekoa

Partaideen **adinaren batez bestekoari** (AB) dagozkion datuen arabera, **batez besteko handiena** agertu da **proiektuak aukeratzeko ariketak** (AB: 49,1 urte) eta **ildo politikoak aurrez aurre lehenestekoak** (AB: 48,9 urte) bete zituzten biztanleen artean.

Aldiz, **ariketa online** burutu zuten bizilagunen batez besteko adina askoz **txikiagoa da**, **aurrekontuak online lehenesteko ariketa** (AB: 39 urte) eta **proiektuak aukeratzekoa** (AB: 38,9 urte) zerrendaren buruan egonda. Gaitasun teknologikoak lortu izanak eta biztanle-maila gazteenek (natibo teknologikoak) azaltzen dute desbiderapen hori eta argi adierazten dute herritarrei aurrez aurreko bideak zein onlinekoak dituzten partaidetza-prozesuak eskaintzeko beharra.




4.1.- Adinaren banaketa ariketen modalitateka: aurrez aurre eta online


Ondoren, egindako ariketetan, **aurrez aurre zein online**, agertu den **adinaren banaketa** zehaztasunez azalduko da.

Oso garrantzitsua da **adin-taldeak ikusaraztea**, 2017ko Aurrekontu Irekien arloan biztanle-maila desberdinek izan duten partaidetza antzeman ahal izateko.


1. PROIEKTUAK AURREZ AURRE (Adin-taldeen arabera)




2. PROIEKTUAK ONLINE (Adin-taldeen arabera)



3. JARDUERA ILDOAK AURREZ AURRE (Adin-taldeen arabera)



4. JARDUERA ILDOAK ONLINE (Adin-taldeen arabera)



3. Jarduera-ildoak: emaitzak


1. Jarduera-ildoak aurrez aurre lehenestea
2. Jarduera-ildoen aurrekontuak online lehenestea.



1. Jarduera-ildoak aurrez aurre lehenestea

Jarduera-ildo politikoak lehenesteko ariketa burutu zuen laginak (N: 1132) **nabarmen eman zien lehentasuna gizarte zerbitzuei (8 puntu baino gehiago) gainontzeko ekintzen edota programa politikoan aldean**. Bigarrenik, zenbait jarduera-ildo daude, antzeko pisua lortu dutenak: **Zergak, Zorra eta Iruzurraren aurkako Borroka, Enpresa Lehiakortasuna eta Berrikuntza, Herritarrak eta Ingurumena eta Ur Kudeaketa (5 eta 6 puntu artean).**


Lehentasun txikiena lortu duten jarduera-ildoan artean (zehazki 5 puntu baino gutxiago) daude Mugikortasun Iraunkorra, Garraio Azpiegitura, Kultura, Gazteria eta Kirolak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendiak eta Lurralde Oreka.



2. Jarduera-ildoen aurrekontuak online lehenestea.

Aurrekontu Irekietarako partaidetza-prozesuaren **onlineko bertsioan** aukera eman zen **jarduketa-ildo bakoitzari zuzendutako aurrekontua simulagailu baten bidez lehenesteko**. Zehazki, parte hartu zuen laginak (N: 182) **ildo bakoitzaren aurrekontua handiagotu edo txikiagotu ahal izan zuen** **-% 5etik + % 5erako tarte batean**, baldintza bakar bat kontuan hartuta: proposatutako banaketa **jarduketa-ildoei zuzendutako guztizko aurrekontuarekin bat etortzea**. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da **proposatutako lehenespena guztizkora doitzeko aukera automatikoa zegoela**, horrela aurrekontuak simulagailuaren bitartez koadratzea lortuz.

Gauzak horrela, **ariketa** horretan parte hartu zuten herritarrek (N: 182) **nabarmen lehenetsi zuten Enpresa Lehiakortasun eta Berrikuntzari zuzendutako aurrekontua beste ildo batzuen gainetik** (+% 0,67). Bigarren lekuan, **Ingurumen eta Ur Kudeaketarako ildoak** aurrekontu-gehikuntza handiena izan du (+ % 0,38%); ondoren agertzen dira **Zergak, Zorra eta Iruzurraren aurkako Borroka, Mugikortasun Iraunkorra eta Gizarte Zerbitzua** (+% 0,20 inguru). **Desbiderapen negatiboari dagokionez**, aipatu behar da **Garraio Azpiegitura, Herritarrak eta Kultura, Gazteria eta Kirolak ildoek** - % 0,40 inguru **galdu dutela**; ondoren ditugu **Lurralde Oreka** (- % 0,30) eta **Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendiak** (-% 0,02).



4. Proiektuak: emaitzak

1. Proiektuen aukeraketa




1. Proiektuen aukeraketa

Proiektuen aukeraketari dagokionez, **aurrez aurreko modalitatean zein online**, ariketa hori burutu duten herritarrek (N: 1380) **Menpekotasunaren Arretarako Zentroak** izeneko proiektua lehenetsi dute, gainontzeko aukerekiko **alde nabarmena** izanda.

Txekin/Emekin, Iruzuraren aurkako Borroka, Agenda 21en Garapena, Nekazari Gazteentzako Enpresak eta 4.0 Industria eta Tailerrak izeneko programek **pareko aukeraketa-indizea** (± 47) lortu dute. Gainontzeko proiektuak zerrendako beheko postuetan agertzen dira, herritarrek adierazitako lehentasunen arabera ordenan.

Gainera, **Mugikortasun Iraunkorra eta Udalekuak Naturan, Kirola eta Kultura** proiektuak aintzat hartuz, **gehien aukeratu diren 8 proiektuak** agerian jartzea lortzen dugu, **guztira 5.457.062 € batzen dituztenak**.

Zerrendaren **azken postuetan** daude **Leihatila Europarra eta Administrazio Elektronikokoaren Ezarpena**, gehien aukeratu den proiektuarekiko desbiderapen absolutu nabarmena izanda (± 733). Halaber, **Jakitun, Antzuola – Bergara tartearen obra, Besarkadak, Kultura Bonoa eta Langileen Partaidetza** izeneko proiektuak, aukeraketa-kopurua aintzat hartuta, ezin izan dira lehenengo 8en artean kokatu.



5. Herritarren ekarpenak

1. Ekarpen orokorrak eta espezifikoak.
2. Herritarren proposamenen analisi diskurtsiboa.




1. Ekarpen orokorrak eta espezifikoak

Herritarrek aurrez aurre zein online adierazi dituzten iradokizun, nahi, lehentasun eta gomendioen arabera kodetu eta kategorizatu diren ekarpen-kopuruari begira esan dezakegu 2017ko Aurrekontu Irekietarako prozesua **partaidetza-ekimen aberasgarria izan dela, aipamen-kopuru handia jaso baitu (N: 1168).**


Aipamenak **kategorizatu, kodetu eta, ondoren, kuantifikatu egin dira**, zenbait **jardueraremutan banatuta, soziopolitikoa, ekonomikoa, kulturala eta administratiboa**, horrela, **diskurtso-mapa** gisa erabilgarri izan daitezen, prozesuan parte hartu duten bizilagunen **kezka nagusiak islatzen dituen** diskurtso-mapa gisa, alegia.

Herritarren ekarpenen analisi diskurtsiboan konpetentzia-harreman zorrotza egin ez bada ere, egokitzen jo da, gaiari buruzko loturagatik zein duten informazio-izaeragatik, kokatuta dauden arloetan **funtssezko ezagutza-iturria diren** aipamenak helaraztea.


Ekarpenei buruz Foru Departamentuka egin den analisi kualitatiboak (N: 903) argi islatzen du **Gizarte Politikako Departamentuari zuzendutako ekimenen lehenespen** estentsiboa. Aitzitik, Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuari dagozkion diskurtsoak aukeratu dira gutxien.




Neurri txikiago batean, **toki-entitateei egindako ekarpenak ere** nabarmendu beharrekoak dira **Eibar eta Donostia** buruan daudelarik.



Jarduera-ildoei buruz **online** egindako ekarpen espezifikoei dagokienez, **Azpiegitura eta Garraio Departamentuari zuzendutako aipamen-kopuru handia** nabarmendu behar da; **izan ere, garraio-azpiegiturak, oro har, eta autobusen ibilbideak, bereziki**, izan dira behin eta berriz mintzagai.



Azkenik, **proiektuei** buruz **online** egin diren ekarpen espezifikoei dagokienez, **Mugikortasun Iraunkorrerako Departamentuari** zuzendutakoak nabarmen gailendu dira, **eta, bereziki, Garraio Publikoaren zerbitzuaren egokitzapenaren eta bizikleta-bideen edota bidegorrien garapenaren ingurukoak.**



2. Herritarren proposamenen analisi diskurtsiboa.

Azkenik, 2017ko Aurrekontu Irekietarako prozesuan **herritarrek adierazi dituzten lehentasunen arabera** lortutako emaitza nagusiak zehaztuko dira.

- **Gizarte Politiketako Departamentua:** Gizarte Politiketako Departamentuari dagozkion iritziak, iradokizunak eta ekarpenak prozesuan zehar gehien agertu direnak izan dira. Berezi, herritarrek azaldu dute **gizarte-politiken garapenean sakontzeko beharra**, eta, zehatzago, Foru Aldundiak eman litzakeen gizarte-zerbitzuetan. Era berean, Gizarte Politiketako Departamentuaren jardura-arloan nabarmendu dira **enplegu-politikak** ezarri, gauzatu eta horien aldeko apustua egitea. Gazteen eta helduen enplegua sustatzeko politiken beharra, batez ere, aipatu da. Halaber, **menpekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta, asistentzia-zentroak sortu eta iraunaraztea** (berezkoak eta itunpekoak) eta **hirugarren adineko pertsonak zein funtzio-**

aniztasuna dutenak zaintzea prozesuan zehar gehien errepikatutako hitzetako batzuk izan dira.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da **hezkuntza- zein osasun-arloetarako politika berriak garatu eta ezartzeko eskaera** espezifikoa egin duten ekarpenen multzoa, baita **berdintasunaren eta gizarte-prestazioen aldeko politikak**, pentsioak kasu, eskatu dituztenena ere. Zentzu horretan, Gizarte Politiketarako Departamentuari egindako ekarpenak bat datoz jarduera-ildoen lehenespenaren (aurrez aurrekoa) emaitzekin, horietan ere **Gizarte Zerbitzuetakoa** izan baita **puntu gehien lortu duen kategoria**.

- **Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua:** Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua bigarren postuan dago aipamenaren kopuruari begira. Zehazkiago, zenbait proposamen daude **lurraldean garraio publikoaren sarea eta sarbideak egokitu, planifikatu edota hobetzeko beharraren inguruan**. Halaber, beste proposamen zehatzago batzuk ere badaude: **trenbide-sarean hobekuntzak egitea, Donostian hiri-inguruko trenerako balizko proiektuari buruzko iritzia, autobus-linea, -geltoki eta -maiztasuna zabaltzea, garraio-txartel bakarra sortzea edota Abiadura Handiko Trena espresuki errefusatzea**.

Gogoratzekoa ere bada Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren inguruan aipamenak egin dituzten herritar askok **bizikleta-bideak edota Bidegorriak lurraldean zehar zabaltzearen aldeko** ekintzak proposatu dituztela.

- **Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentua:** Hirugarren postuan dugu. **Gipuzkoako lurraldeko ekonomia-sustapena erdigunean dago** Departamentura helarazitako ekarpenen zerrendan. **Hazkunde sozioekonomikoaren inguruko** kezak adierazi dituzten bizilagunek errepikatutako beste gai batzuk dira inbertsioen hazkundea, merkataritzaren sustapena eta gazteentzako zein enpresarientzako laguntzak.

Era berean, aipatu beharra dago **landa- eta nekazaritza-ingurunearen aldeko apustua, baita berrikuntzaren aldekoa ere**. Bi arlook, **ekonomia-sustapenerako estrategia batek** elkarri lotuta, gazteen enplegua, tokiko merkataritza, lehiakortasuna eta lehenengo sektorea bultzatuko lituzkete, aztertutako diskurtsoen arabera.

- **Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua:** Hasteko, **hondakinen eta zaborren kudeaketak** bereizten ditu atal honetako diskurtso ugari. **Errausketa-instalazioaren aurkako gehien jarrerek eta hondakinen bilketa zein prozesamendu eraginkorrak ahalbidetuko dituzten planak egituratzeak** marka utzi dute Departamentu honetan.

Bigarrenik, **Ingurumenaren babesa** eta ingurumenaren kalitateari emandako garrantzia dira herritarren kezka nagusietako batzuk; izan ere, herritarrek ingurune garbiak eta babestutako berdeguneak eskatu dituzte.

- **Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua:** Foru Erakundeak **kultura-sustapen eta -garapenari** lurraldean eman diezaiekeen bultzada da lehentasunezko ekintza bat Departamentu honen jarduera-eremuaren inguruko ekarpenak egin dituzten pertsonentzat. Horrez gain, **gazteentzako berariazko arreta leku nabarmenean dago**; izan ere, hori zeharkako gaia da, beste zenbait departamenturen jarduera-eremuetan ere islatzen dena: gazteentzako ekonomia-sustapena edota enplegurako politika aktiboak. Halaber, neurri txikiago batean baina badaude Gipuzkoan **Kirola sustatzearen eta Turismoa garatzearen** aldeko ekarpenak.
- **Ogasun eta Finantza Departamentua:** Esanguratsua da **zerga-iruzurraren aurka** modu eraginkor eta arduratsuan **borrokatzeko eta zentzuzko aurrekontu-kontrola bermatzeko baliabideak** esplizituki eskatu dituzten ekarpenen kopurua. Bigarren lekuan nabarmendu dira hainbat zerga-proposamenak, batez ere, **Foru Ogasunek ezartzen dituzten zergen eta zerga-marjinen ingurukoak**.
- **Bide Azpiegituretako Departamentua:** Bide-sarearen eraikuntza, mantentze-lana eta ustiapena agertu dira ekarpen-kopuru handi batean. Batez ere, herritarrek adierazi dute lehentasuna **Antzuola-Bergara tartea** eta **Zarautz inguruan mugikortasuna bermatuko duten galtzada berriak egitearen alde**, besteak beste. Departamentu honi egindako beste ekarpen batzuk dira: **obra berriak** egitea, **bideen mantentze-lanak**, **errepede-sarea sustatzea eta ordainsariak aztertzea**.
- **Ahaldun Nagusia:** Kategoria honetan kodetutako ekarpen gehienek **Euskararen sustapena** eskatu dute eta normalizazioa, bai gizartearen eremuan bai administrazio publikoaren, ikusi dute horretarako bide. Era berean, badago aipamen-multzo bat **bizikidetzeta eta Giza Eskubideei lotuta**, baita **Lurraldearen Foru Kudeaketarako Estrategia** barruan sar daitekeen neurri-multzo bat ere.
- **Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua:** Hauxe da adierazpen gutxien jaso dituen departamentua. Hala ere, herritar askok egin dituzte **2017ko Aurrekontu Irekietarako** partaidetza-prozesuari buruzko adierazpen espezifikoak, bai **ekimenak sortu dien poztasuna** nabarmenduz bai proiektuak edota jarduera-ildo politikoak aukeratzen sortu zaizkien hainbat zalantza azalduz. Edonola ere, Departamentu honetan **partaidetzari eta gardentasunari** emandako garrantzia funtsezkoa da: zenbait adierazpenek prozesu hau txalotzeaz gain, **partaidetza-ekimenak egitea** eskatu dute, elkarrengandik urruntzen diren gizarte-jarrerak sor

ditzaketen gaien inguruan, errausketa-instalazioa kasu, herritarren iritziak galdetuko dituzten ekimenak hain zuzen. Halaber, gardentasuna eta partaidetza nabarmentzen dira **herritarrekiko hurbilagoko politika bat egituratzen duen estrategia gisa.**

II. ONDORIOAK

1. Emaitzak



Foru Aurrekontuen prestaketan herritarren partaidetza modu eraginkorrean txertatzea da Gipuzkoako Foru Aldundiak Herritarren Partaidetzarako Legealdi Planaren barruan egin duen apustueta bat. Horren bidez, **balio publikoaren** sorkuntzan herritarren erantzunkidetasuna lortu nahi da, gizartea osatzen duten pertsonak erdigune bihurtuz eta herritar-zentzua zein ingurunearekiko eta guztion onarekiko konpromisoa sustatuz. Sorburuan helburu argi bat dago: **gizarte gipuzkoar osoa ahalduntzea** (bere aberastasun eta aniztasuna aintzat hartuta), jakitun izan dadin berari dagozkion auzi politiko eta publikoen gaineko erabakietan parte hartu eta eragina izatea daukan eskubidea dela eta, aldi berean, gizarte hau osatzen dugun guztion betebeharra.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurrekontu Irekiak osatzeko ereduak **herritarren zinezko partaidetza bermatu du Foru Aurrekontuen prestaketan**; izan ere, helburuak ezarri eta ekintza-proposamenak helburuen arabera moldatzeaz gain, honako hauek guztiak identifikatu eta zehaztu ditu: pertsona zein erakunde parte-hartzaileak, aurreikusitako partaidetza-ekintzak eta -bideak, antolatutako ibilbideak eta informazio-fluxuak eta prozesuaren funtzionamendu zuzena bermatzeko ezarritako lan-protokoloak.

Esperientzia aitzindaria da, aurrez aurreko zein alegiazko hainbat bide batu dituena, eta jarraitzeko bokazioa ez ezik etengabe hobetzekoa ere iturburuan duena. Hori guztia ondorengoak lortze aldera:

- ✓ Prozesua **ikusaraztea** komunikabideetan.
- ✓ **Aldundiaren eskumenak eta bere Aurrekontuen norainokoa herritarrei jakinaraztea ahalbidetzen duen** pedagogia-osagaia txertatzea.
- ✓ **Lurralde-, eskualde- eta toki-ikuspuntua** modu koherente batean sartzeari buruz.
- ✓ **Egutegia** eta epeak **erakundearen beraren erritmo eta logiken arabera** zein **herritarren beharren arabera moldatzea**.
- ✓ **Herritar-erantzunkidetasuna sortzea**.

Hauteskunde Autonomikoen aurrerapenak eragindako **data-aldaketak** behartu gaitu epeak eta mugarriak egutegi askoz mugatuago batera moldatzera. Edonola ere, prozesuan parte hartu duten **guztizko kopuruak eta profilen aniztasunak aukera eman digute ekimena baliozkotzeko** baita hurrengoetan sartu beharreko hobekuntza-arloak zehazteko ere.

Ondoren azalduko dira **Aurrekontu Irekiak 2017 izeneko ekimenaren partaidetza-zedarriak**, askotariko lagin aberasgarri bat lortu duen prozesu baten ezarpena agerian jartzen dutenak:

1. PARTAIDETZA BULTZATZEA, AURREZ AURREKOA ZEIN ALEGIAZKOA:

Aurrekontu Irekiak 2017 partaidetza-prozesua, aurrez aurre, **hainbat tamainatako herriguneetan kokatutako informazio gune (karpak) ibiltarien** bidez gauzatu da. Zehazki, partaidetza-karpak **jardunean egon ziren 16 egunez** (irailaren 26tik, astelehenetik, urriaren 13ra, ostegunera) ordutegi jarraian 10:00etatik 19:00etara.

EUSTAT agentziaren errolda-datuen arabera (2005), partaidetza-karpak kokatu diren 16 herriguneek 469.933 biztanle dute guztira, hau da, Gipuzkoan erroldatutako pertsonen %66,2. Hortaz, **Lurralde Historikoko 2 pertsonatik 1engan gutxienez eragin zuzena izan duen** prozesu baten aurrean gaude.

Halaber, **herritarren onlineko partaidetzarako atondu den alegiazko bidea 44 egunez egon da zabalik** (irailaren 1etik urriaren 14ra), proposatutako partaidetza-ariketak lurralde osoan eta zentzuzko denbora-tarte batean egiteko aukera emanez. Denbora tarte horretan bertan, gainera, aurrez aurreko ekimena eta prozesuaren publizitazioa gertatu dira.

2. PROZESUA HEDATU ETA PUBLIZITATZEKO JARDUERAK:

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak berak eta **Partaidetza Zuzendaritzak** garatu dute prozesuaren **komunikazio-estrategia**. Horretarako, prozesua **idatzizko prentsan eta ikus-entzunezkoetan publizitatzearaz gain**, Lurraldea egituratzen duten hainbat ordezkari sozial, ekonomiko eta kulturelekin **ekitaldi publikoak** egin dituzte. Zentzu horretan, **komunikabideetan egindako elkarriketak, sare sozialetako zabalpenak, eta prentsan zein irratian agertutako publizitatea etengabeak** izan dira prozesuan zehar. Horri esker, **herritarrekiko komunikazio eraginkorra bermatu da, bi hizkuntzatan, prozesuaren ondorioz, askotariko lagin adierazgarri bat biltzeko gai izan dena**.

Partaidetza-karpekin batera, **hainbat ekitaldi publiko** antolatu dira, Imanol Lasa Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatuaren eta Joseba Muxika Partaidetzako zuzendariaren eskutik, **Aurrekontu Irekiak 2017 izeneko ekimena aurkeztu eta herritarrekin kontrastatzeko**. Kontraste-ariketa horietan **542 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte**, hainbat arlotakoak zirenak, hala nola, erretiratuen elkartekoak, hezkuntza-zentrokoak eta kirol-, familia- zein enpresa-taldekoak.

3. **LORTUTAKO HERRITAR-LAGINA:** 2017ko Aurrekontu Irekietarako partaidetza-prozesu horren ondorioz, 1547 biztanleko herritar-lagin batek hartu du parte proiektuak aukeratuz, jarduketa-ildoak lehenetsiz eta ekarpenak helaraziz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu-estrategiaren inguruan. Zehazki, 1354 pertsonak aurrez aurre bidali zituzten ekarpenak edota bete zuten proposatutako ariketaren bat (galdera-sortak GFako erregistroetara/udal-erregistretara edota partaidetza-karpetara helarazi zituzten), eta 182k online egin zuten.

Aurrez aurre ariketak egin zituzten partaideen kopuruari dagokionez, 1205 pertsonak egin zuten proiektuak aukeratzeko ariketa, eta 1132k lehenetsi zituzten Gipuzkoako jarduketa-ildoak.

Online, 175 pertsonak burutu zuten proiektuak aukeratzeko ariketa eta 183k azaldu zuten beren ikuspuntua jarduketa-ildo bakoitzerako aurrekontu-sailen inguruan.

Azkenik, prozesuan zehar ekarpenak, ideiak, iradokizunak, nahiak eta gomendioak helarazi zituzten auzokideen multzoak biribildu du lagina. Behin kategoriatan sailkatuta eta kodetuta, herritarren adierazpen horiek guztiak 1168 dira.

4. **PARTAIDETZA GENEROAREN ARABERA:** Emakumezkoen partaidetza gailendu da gizonezkoen partaidetzaren gainean aurrez aurreko ariketetan, bai proiektuak aukeratzekoetan (631 emakumezko eta 506 gizonezko) bai jarduketa-ildoak lehenestekoetan (584 emakumezko eta 481 gizonezko). Aitzitik, gizonezkoen partaidetza handiagoa izan da Aurrekontu Irekiak 2017 ekimenerako alegiazko bideetan. Zehazki, 104 gizonezkoak aukeratu dituzte proiektuak online (59 emakumezkoak), eta 110 gizonezkoak lehenetsi dituzte jarduketa-ildoak (60 emakumezkoak).

5. **PARTAIDETZA ADINAREN ARABERA:** Partaidetza-ariketetarako laginaren batez besteko adina 49,1 urtekoa da proiektuen aukeraketari dagokionez, aurrez aurreko bideetan, eta 48,9 urtekoa jarduketa-ildoen lehenespenari dagokionez, hori ere aurrez aurreko bideetan.

Hala ere, onlineko bertsioan parte hartu zuten herritarren batez besteko adina urrun dago aurrez aurreko batez bestekotik, eta askoz adin-tarte gazteago bat islatzen du (-10). Natibo teknologikoak edota teknologia-gaitasunak dituztenak aintzat hartuta, proiektuen aukeraketarako batez besteko adina, online, 38,9 urtekoa izan da, eta jarduketa-ildoen lehenespenari dagokionez, 39 urtekoa.

1. Emaitzak

2017ko Aurrekontu Irekietarako partaidetza-prozesu honi esker, 1547 bizilagunek osatutako lagin batek proiektuak aukeratu, jarduera-ildoak lehenetsi eta ekarpenak helarazi ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu-estrategiaren inguruan.

Partaidetza-prozesu honetan erdietsitako emaitzek argi adierazten dute laginaren (N: 1547) **joera nabarmena gizarte- eta ekonomia-arloko** jarduera-gai politikoen alde. Prozesuaren partaide izan diren bizilagunek helarazitako ekarpenek egiaztatzen dute baieztapen hori, joera argia azaldu baitute Lurralde Historikoan gizarte-arloa egituratu eta sustapen ekonomikoa bultzatzen duten ildo politikoen alde.

Jarraian, ondoko gaien inguruan burututako ariketetan **erdietsitako aurkikuntza nagusiak gogoratuko ditugu: jarduera-ildo politikoen lehenespena, proiektuen aukeraketa, aurrez aurreko bideetan zein online, eta herritarrek helarazitako ekarpenen analisisia.**

- 1. JARDUERA-ILDOAK (Aurrez Aurre):** Jarduera-ildoei dagokienez, **Gizarte Zerbitzuen arloa dago buruan**, arlo horretako zenbait gairen aldeko apustu argia egin baita: pentsioak, gizarte-prestazioak, ezgaitasuna, adinekoentzako arreta, genero-indarkeriaren biktimak, haurren babesa eta gizarteratze-lanak, besteak beste.

Herritarrentzako lehenetasunezko ekintza politikoen artean bigarrenik honakoak nabarmendu behar dira: zergen kudeaketa, zerga-politika, herritarrentzako sostengua eta arreta, iruzurraren aurkako borroka, aurrekontuak, finantza-kudeaketa eta zorraren ordainketa. Horien ostean agertzen dira lehiakortasunaren sustapena eta nazioartekotzea, turismoaren promozioa, zientzia, teknologia eta berrikuntza.

Lehenetasun txikiena lortu duten ildoen artean Lurralde Oreka dago. Ildo horren baitan biltzen dira zoruaren kudeaketa, udalerri txikien sostengua edota lurraldearen antolamendua baita nekazaritza, abeltzaintza eta mendien sustapenari lotutako ekintza politikoak ere.

- 2. JARDUERA-ILDOEN AURREKONTU DESBIDERAPENAK (Online):** Jarduera-ildoen aurrekontuak lehenesteko ariketa burutu duten herritarrek **enpresa lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzeko zuzendutako aurrekontu-saila nabarmen lehenetsi dute galdera-sortan agertzen ziren gainontzeko planen gainetik.** Ingurumenaren eta Ur Kudeaketaren inguruko jarduerak eta, ondoren, Zergak, Zorra eta Iruzurraren aurkako Borroka ere nabarmentzekoak dira gainontzekoen aldean aurrekontu desbiderapen handiena lortzen dutenen multzoan.

Aitzitik, **aurrekontu gehien galdu duten jarduera-ildoak** dira **Garraio Azpiegitura, Herritarrak eta Kultura, Gazteria eta Kirolaren sustapena**.

Kasu horretan, azpimarratzekoa da ariketa horren emaitzak ez datozela bat aurrez aurre zein online egindako proiektu-aukeraketarekin (N: 1380), ez jarduera-ildo politikoak aurrez aurre egindako lehenespenarekin (N: 1132) ezta ekarpenen zerrendarekin (1168) ere. Hala eta guztiz ere, ariketa hori bete zuen laginaren urritasuna (N: 182) argigarri suertatzen da emaitza horien zergatia analitikoki ulertzeko baita beren adierazgarritasun eskasa ulertzeko ere.

3. **PROIEKTUAK (AURREZ AURRE ETA ONLINE):** Esanguratsua da, gainontzeko proiektuen aldean, laginak eman dion pisua menpekotasunei arreta emateko zentro eta zerbitzu berriak Gipuzkoan zabaltzeko egitasmoei, hau da, **Menpekotasunen arretarako Zentroei**. Bigarren postuan **Txekin/Emekin** proiektua agertzen da; horren helburua da enpresa berrien sorrera sostengatzea, arreta berezia langabeei eta emakume ekintzaileei emanez. Ondoren dugu **Iruzuraren aurkako Borrokarako Programa**, zerga-iruzurraren aurkako borrokari zuzendutako baliabide materialak zein informatikoak hobetzeko asmoa duena.

Agenda 21en Garapena, nekazari gazteentzako enpresak sortzeko proiektua eta **4.0 industria eta tailerrak**, pareko pisua lortuta, proiektu estrategiko gisa hartu dituzte herritarrek.

Aukeraketaren azken lekuetan, **Leihatila Europarra dugu azkena**. Proiektu horrek desbiderapen deigarria (± 733) azaldu du lehenengo proiektuarekiko. Gauzak horrela, administrazio publikoei zuzendutako diru-laguntza europarrak lortzeko aholkularitza teknikoak babes txikiena erdietsi du. Horren ostean topatzen da **Administrazio Elektronikorako** proiektua, egunero herritarren eta administrazioaren artean egiten diren gestioak ezarri eta modernizatzeko asmoa duena.

4. **HERRITARREN EKARPENAK (Aurrez aurre eta Online):** Herritarren ekarpenen kuantifikazioaren eta ondorengo kodifikazioaren arabera (N: 1168 aipamen), **Gizarte Zerbitzuen inguruan egindako ekarpenak eta iradokizunak berriro ere dira gehien errepikatu diren diskurtso-elementuak**. Zehazki, hauexek izan dira ekarpenak egiteko orduan bizilagunek aipatu dituzten arloak: **Gizarte Politikak, Enplegurako Politika Aktiboak, Menpekotasunaren Arreta** (asistentzia-zentroak sortu, garatu zein iraunaraztea eta adinekoentzako nahiz funtzio-aniztasuna duten pertsonentzako arreta barne), **Hezkuntza, Osasuna, Berdintasun Politikak eta Pentsioak**.

Gizarte Zerbitzuei lotutako politiken ondoren, **Garraio eta Plangintza** arloari zuzendutako aipamen-multzoa dugu. Bertan, adierazgarria da **Garraio Publikoaren**,

oro har, eta trenbide-zerbitzuaren, autobusen eta bizikleta-bideen, bereziki, inguruko aipamen-kopurua.

Azkenik, nabarmentzekoak dira **Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka** arloari buruzko ekarpenak. Horien bidez adierazi da **lurralde lehiakor bat, landa-eremuan zein hiri-eremuan, egituratzeko** beharra baita **berrikuntza, garapena eta ezagutza zientifikoa sortu ahal dituzten inbertsioak lehenestekoa** ere.

III. KONPROMISOAK



Aurrekontu Irekiak 2017 partaidetza-prozesuaren alorrean ekingo zaio lortutako emaitzen **kontu emateari** eta aldundiak, herritarren eskaerei erantzunez, bere gain hartuko dituen zenbait konpromiso onartzeari. Ildo horretan, **hainbat bide erabiliz, prozesuaren emaitzak eta mugarriak jakinaraziko zaizkie prozesuan parte hartu duten herritarrei eta gizarte gipuzkoar osoari**. Modu horretan **nabarmenduko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidaritzapean egindako entzuketara aktiboko ekimen honetan burutu den partaidetza-ariketaren eta herritarren ekarpenen balioa**.

Beraz, **Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu du konpromiso hirukoitz bat, partaidetza-prozesuaren emaitzak jakinarazi, bildutako ekarpenak aztertu eta horiei erantzutea, hain zuzen.**

Horrez gain, erakunde honek beste konpromiso bat ere hartu du bere gain **Aurrekontu Irekiak 2017** ekimenaren inguruan: alor horretan gauzatu den partaidetza-prozesutik sortutako proiektuen eta lehentasunezko jarduketara-politiken betetze-mailari buruzko kontu emate eraginkorra gauzatzea.

Herritarrei **kontuak eman eta konpromisoak itzultzeko** jardunbidea **behin partaidetza-prozesu** honetan **herritarrek** helarazitako **ekarpenak kodetuta eta aztertuta** abiaraziko da. Zehazki, **ekarpen-multzoa 2017ko aurrekontuetan txertatzeko modua kontrastatuko da, eta aurrekontuak behin betiko onartu ondoren, herritarren ekarpen bakoitzerako hartutako konpromisoak itzuliko dira.**

Une honetan herritarren **eskaera asko txertatu dira jadanik** oraingo aurrekontu-proiektuan eta beste batzuk errefusatu egin dira. Oraindik **kodetu gabe daude herritarren zenbait eskaera**, kodetze-fasea amaitutakoan, eta **aurrekontuen behin betiko onarpenarekin batera, atal hau idazten amaitu nahiko genuke.**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA